

Itsas zaldiak.

Palos lurmuturretik iparraldera, 24 kilometroko lur zerrenda hedatzen da Mar Menor eta Mediterraneo itsasoaren artean. La Manga del Mar Menor izena hartzen du, eta harea sedimentuz osatua dago. XVI. mendetik, sedimentu hauek ordura arte badia ireki batean zeuden milaka uharte elkartzen joan dira eta Mar Menor itxi dute.

Etxebizitza agentzien diru goseak bidea itxi die elementu tradizionaleri eta 1960 hamarkadara arte, La Manga janzten zuten duna eta sastrakak desagertu egin dira paisaiatik. Mar Menor itsas aintzira bat da, hau da, *gola* deituriko kanal batzuen bidez itsasoarekin komunikatua dagoen aintzira bat, eta itsasotik dator bertako ura.

Eta aintzira gazi honetan, pertsonentzat beti deigarri izan diren animaliak aurkitzen dira. Itsas zaldiak singnatidoen familiako arrain teleosteoak dira. Generoari bere itxuragatik ematen zaion izena *Hippocampus* da, eta hipokanpoak Poseidonen gurdia tiratzen zuten zaldiak ziren.

Baina batzuetan, isatsa Posidonia hostoen inguruan kiribiltzen dutenean, zaldunen balentriak kontatzen dituzten ipuinetako herensugeak gogorarazten dizkigute. Euren gorputza estaltzen duten hezur plakek ematen dien zurruntasuna dela-eta, bertikalki, pixka bat makurturik eta motel mugitu beharra daukate. Beraientzat ez da erraza ihes egitea, baina kamuflatzeko gaitasuna defentsa estrategia ona da harraparien aurrean.

Arrain bat dela baieztatzeko froga nagusia bere hegalkak dira. Bizkarrekoak abaniko forma du, eta honek bultzatzen du 15 zentimetro inguruko gorputz txikia. Ernalketa ostean, arrautzak arrek sabelaldean duten poltsan uzten ditu emeak. Zenbait astez txitatu ondoren, isatsaz estutzen dute poltsa eta kumeak kanporatu.

Zooplanktoneko krustazeo txikiak ditu elikagai gustukoena. Elkarrekiko independenteak diren begien mugimenduari esker, harrapakin goxoenak lokaliza ditzakete.

Jatunak izaki, muturraren puntan daukaten hortzik gabeko ahoak animaliak bizirik eta osorik xurgatzen ditu. Espainiar kostaldeetan bi espezie aurkitzen ditugu: *Hippocampus hippocampus*, arruntena, eta *Hippocampus ramulosus*, buruko eta bizkarreko eraztunak filamentuetan luzatzen direlako bereizten dena. Bata zein bestea oroigarri turistikotzat bilatua. Hauskor eta izuak, jatun amorratu eta azkarrak, itsas zaldiek, kondairetako protagonista, irudimena liluratzen jarraitzen dute, baina zientzialari eta naturalistak ere kezkatzen dituzte. Bizirik eta euren habitatean lortzen dute edertasun maila gorena. Sare trofikoek egiturako korapilo guztiak behar dituzte.